



LEGE-OINARRIAK

KOOPERATIBISTENTZAKO ZOZKETA

1.- ERAKUNDE ANTOLATZAILEA ETA ZOZKETAN PARTE HARTZEKO EGUNA

Caja Laboral Popular S. COOP. sozietateak –aurrerantzean LABORAL Kutxa–, helbidea Arrasaten (Gipuzkoan) – Jose Maria Arizmendiarieta, zk.g., 20500– duenak, AUTO-ASEGURU bat eta ETXE-ASEGURU bat zozkatuko ditu, sustapen baten barruan. LABORAL Kutxari elkarturiko kooperatibetako bezero kooperatibistek hartuko dute parte, baldin eta EKAINaren 15etik 25era bitartean bidali zaien inprimakia betetzen badute. Parte-hartzaileek 18 urte baino gehiago izan behar dituzte.

2.- DOAKOTASUNA

Zozketak doakoak izango dira. Hortaz, saria irabazteko ez da kuotarik edo kopuru osagarririk ordaindu behar.

3.- ZOZKETAN PARTE HARTZEKO LEGITIMAZIOA

LABORAL Kutxari elkarturiko kooperatibetako bezero kooperatibistek hartuko dute parte, baldin eta EKAINaren 15etik 25era bitartean bidali zaien inprimakia betetzen badute. Parte-hartzaileek 18 urte baino gehiago izan behar dituzte.

Irabazleak egunean eta positiboan izan behar ditu entitatearekin kontraturiko produktuak edo zerbitzuak eta harreman ekonomikoa. Bestela, saria baliogabetzeko eskubidea erabili ahal izango du entitateak.

4.- ZOZKETA

Zozketaren data: 2021eko ekainaren 30a.

Zozketan doako auto-aseguruaren eta etxe-aseguruaren irabazlea aterako da, baita 5 ordezko ere, badaezpada irabazleak baldintzak betetzen ez baditu ere. 10 egun baliouduneko epean saridunarekin harremanetan jartzerik ez badago entitatearen datu-basean bezero horretaz dauden datuak erabiliz, saria lehen ordezkoarentzat izango da eta, ondoren, hurrengoentzat, zozketan ateratako hurrenkerari jarraikiz. Saria pertsonala eta besterenezina da.

5.- SARIAREN DESKRIBAPENA ETA ENTREGATZEKO MODUA

Honako hau da saria: LABORAL Kutxak bitartekoturiko Seguros Lagun Aroren doako auto-aseguru bat eta etxe-aseguru bat.

KONTRATATUTAKO ASEGURUAK

- Kooperatibistak bi aseguruak kontratatuta baditu LABORAL Kutxan, ordaindu ondorengo 30 egun balioudunen ostean itzuliko zaio prima bakoitza. Dagoeneko ordainduta baditu eta nahitaezko 30 egunak igaro badira, zozketaren ondorengo bi egun balioudunen ostean itzuliko zaizkio primak.
- Kooperatibista eta bere ezkontidea hartzaile diren aseguruak barne hartzen dira. Etxe- edo auto-aseguruaren hartzailea kooperatibistaren bikotekidea bada, prima itzultzeko eskakizuna betetzen dela joko da.

ETXE-ASEGURUA

- Prima bakar bat itzuliko da. Kooperatibistaren batek etxe-aseguru bat baino gehiago baditu, primarik garestiena itzuliko zaio. Gehieneko zenbatekoa 350 €-koa izango da.

AUTO-ASEGURUA

- Prima bakar bat itzuliko da. Kooperatibistaren batek auto-aseguru bat baino gehiago baditu, primarik garestiena itzuliko zaio. Gehieneko zenbatekoa 600 €-koa izango da.



ASEGURU BERRIAK

Aseguruak kontratatu berriak badira, ordaindu ondorengo 30 egun baliodunen ostean itzuliko zaio prima bakoitza kooperatibistari. Etxe-aseguruagatik 350 € eta auto-aseguruagatik 600 € itzuliko zaizkio gehienez. Aseguru berriek Seguros Lagun Aroren kontratazio-arauak bete behar dituzte.

Saridunak beste konpainia batean baditu auto- eta etxe-aseguruak, aseguru horiek mugaeguneratzen direnean Seguros Lagun Arorekin kontratatuko ditu, eta Seguros Lagun Arori aseguruak ordaindu ondorengo 30 egun baliodunen ostean itzuliko zaio primen zenbatekoa (gehienez 350 € etxe-aseguruagatik eta 600 € auto-aseguruagatik).

Saridunak kontratazio-arauak betetzen ez baditu, gehienez 350 € etxe-aseguruagatik eta 600 € auto-aseguruagatik itzuli ahal izango zaizkio, baldin eta aseguruak beste konpainia batekin kontratatuta dituela egiaztatzen badu.

6.- SARIAREN ZERGA-SISTEMA

Saria indarreko legerian ezarritako zergen eraginpean egongo da. Sariak zerga-kargak baditu, LABORAL Kutxak hartuko ditu bere gain.

7.- IRUDI-ESKUBIDEA LAGATZEA

Zozketako irabazleak, saria jasotzeko eskubidea izango badu, baimena emango dio LABORAL Kutxari, saridun den aldetik bere izen-abizenak argitaratzeko, entitateak zozketa ezagutarazteko egoki deritzen argitalpen edo baliabide telematikoetan.

Bestela, galdu egingo du saria jasotzeko eskubidea, eta zozketaren arabera dagokion ordezkoiari emango zaio.

8.- OINARRIAK ONARTZEA

LABORAL Kutxak eskubidea izango du zozketa honen inguruan sortzen den edozein auzi edo eztabaida egoki deritzon legez bideratzeko, baita zozketa geroratu, aldatu edo bertan behera uzteko ere. Era berean, zozketatik kanpo utzi ahal izango ditu zozketaren emaitzak fede gaiztoz aldarazten saiatzen diren pertsonak.

Bezeroak zozketan parte hartzeak esan nahi du oinarri hauek oso-osorik onartzen dituela. Oinarriok www.laboralkutxa.eus orrialdean kontsulta daitezke.